


ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

“PREMIA EDO NAHIA?”

Jarduera-zk.: 3

B(t)
Bizkaia with the talent



Erakunde parte-hartzaileak:

Ikaskuntza-egoera

Testuingurua::

Kontsumismoa ondasunak edo zerbitzuak modu metagarrian erosteko joera da; pertsona baten oinarritzko premiak asetzetik harago doa. Gaur egungo ekoizpen- eta kontsumo-eredua ez da jasangarria, eta ondorio negatiboak ditu; besteak beste, berotze globala, kutsaduraren hazkundera, ekosistemen narriadura eta aberastasun/pobrezia terminoetan gizarte-arrakala handitzea.

Jardueraren bidez, gure kontsumo-ohiturei buruz hausnartu nahi da. Helburua da identifikatzea zein oinarritzko premia asebate behar diren bizitza duina izateko eta planetaren jasangarritasunarekiko oreka bilatzeko.

Gainera, ekoizpen- eta kontsumo-eredu berriak planteatu nahi dira, hala nola ekonomia zirkularrak eskaintzen duena; hots, hondakinak ahalik eta gehien murriztea, produktuen bizi-zikloa luzatuz, betiere aurrerapen zientifiko-teknologikoen eskutik.

Ezagutu "zero waste" filosofia. Haren leloa esaldi honen bidez laburbil daiteke: "ez da garbiagoa gehien garbitzen duena, gutxien zikintzen duena baizik".

Aldi berean, agerian utzi nahi da nola eragiten duen publizitateak gure eroste-erabaketan. Zer erosi nahi dugu? Zer saldu nahi digute?

Abiapuntua:

Hiri txiki bateko biztanleek, eztabaida sutsu baten ondoren, bizi-kalitate onari eusteko zein produktu/zerbitzu diren garrantzitsuak aukeratu dute.

Handik denbora batera, krisi ekonomiko larri bat etorri da, eta zerrenda hori murriztu egin behar izan dute. Hala, haien ustez ezinbestekoenak diren 10 produktu/zerbitzu soilik aukeratu dituzte.



Helburuak:

Gure kontsumo-premiak aztertzeke jarduera.

1. Bizimodu duina izateko asebate behar diren gutxieneko premiei buruz hausnartzea.
2. Premiak norberaren nahiengandik bereiztea.
3. Gehiegizko kontsumoaren ondorioak aztertzea.
4. Jasangarriagoak diren bizimodu duinak lortzen lagundu diezaguketen lanbideak ezagutzea.

Funtsezko gaitasunak:

KONPETENTZIA PERTSONALA,
SOZIALA ETA IKASTEN IKASTEKOA
(KPSII),
MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA
eta ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA
INGENIERITZARAKO KONPETENTZIA
(ZTIM)

Deskriptore operatiboak:

KPSII3, KPSII2, KPSII5, ZTIM2, ZTIM3,
ZTIM4, ZTIM5, ZTIM6



Jardueraren deskribapena

1

Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak (15 min)



Bideo hau bistaratzea:

Bideoa: [“ODS 12 Producción y Consumo Responsables”](#)
(UN Etxea. UNESCOrako Euskal Herriko Elkarteak) (2.10 min)



IKASGELAN STEM pertsona bat izanez gero, jarduera hasi aurretik, aukera hauek planteatzen dira:

A. Asmatu zertan lan egiten duzun eta nola lortu duzun lanbide hori izatea.

Soilik bai edo ez erantzun daitezkeen galderen joko baten bidez, ikasleak gonbidatuaren lanbidea zein den eta lanbide hori lortzeko zer ikasketa egin dituen asmatzen saiatuko dira.

Gonbidatuak, hasteko, bere jarduerari buruzko bi edo hiru pista emango ditu, eta, ondoren, ikasleek egindako galderei erantzungo die. Gonbidatuak bai ala ez soilik erantzun ahal izango du, jokoaren helburua betetzen den arte: gonbidatuak zer lanbide duen eta zer ikasketa egin dituen asmatzea.

B. Nire esperientzia profesionala partekatuz.

Jardueran parte hartuko duen profesionala ezagutu ondoren, haren esperientzia profesionalaren berri jakingo dugu, aldeztu aurretik prestatutako galderen bidez. Ikasleek, horretarako, galdera anonimoak prestatuko dituzte jarduera gidatuko duen pertsonaren laguntzarekin. Galdera horiek kutxa batean sartuko dira (galdera bakoitza txartel batean).

Gonbidatuak bere bizitza profesionalaren azalpen bat emango du eta, txartelak atera ahala, ikasleek egindako galderei erantzungo die.

2

Gure kontsumo-ohiturak aztertuz (5 min)

Programaren gidariak galdera hauek mahaigaineratuko ditu parte-hartzaileek eztabaidatu ditzaten:

- Zein dira gure premiak?
- Erosten dugun guztitik, zer behar dugu benetan?
- Zer estrategia erabiltzen dira hasieran erosi asmo genuena baino gehiago erosarazteko?

2



IKASGELAN PROFESIONAL bat badago, gonbidatuak esango du bere ustez zer ekarpen egiten duen bizi-kalitate ona lortzeko, eta, hala badagokio, zer eragin duen gure erabakietan.

Aukeratu zure ezinbestekoak (15 min)



Taldeakako jarduera

Osatu talde txikiak (4-6 lagun).

Talde bakoitzari fitxa-sorta bana emango zaio. Fitxa horiek bizi-kalitate ona ziurtatzeko zehaztu diren aukera guztiei dagozkie.

Talde bakoitzak funtsezkotzat jotzen dituen 10 produktuen/zerbitzuen fitxak hautatu beharko ditu, lehentasun-hurrenkeraren arabera.



ERANSKINA: [Produktuen / zerbitzuen fitxak](#)

Bateratze-lana eta bat-etortzea

Talde bakoitzak zein 10 produktu/zerbitzu hautatu dituen azalduko du. Ondoren, hautaketa hori justifikatuko du, eta aukeratutako fitxak taulan jarriko ditu, lehentasun-hurrenkerari jarraikiz.

Taldeen zerrendak bat ez badatoz, eztabaida bat egingo da bat ez datozen fitxei buruz. Helburua fitxak 10era murriztea izango da.

Eztabaida bultzatzeko gaiak:

- Hasierako zerrendako zein artikulua dira nahiak eta zein premiak?
- Zer alde dago nahien eta premien artean?
- Nahiak eta premiak desberdinak al dira pertsona batetik bestera? Eta gizarte batetik bestera? Zergatik bai edo zergatik ez?
- Premien edo nahien arabera kontsumitzen dugu?
- Denok berdin kontsumitzen dugu?

3

4

Aldaketa posible da! (10 min))

Bizi-kalitate ona lortzen eta mantentzen laguntzen diguten lanbideak ezagutuko ditugu, jasangarritasunaren garrantzia ahaztu gabe.

4



Programaren gidariak, gonbidatuaren laguntzarekin, beren ezinbestekoak betetzeko funtsezkoak diren [PLANETETAN](#) nabigatzera gonbidatuko du talde bakoitza. (Aldaerak: talde bakoitzak hautatutako lehen 3 aukerekin lotutako profil profesionalak aztertzea, globalak...)



IKASGELAN STEM pertsona bat izanez gero, gonbidatuak ekonomia zirkularraren kontzeptua eta zero waste helburua (zero hondakin) bere sektorean inplementatzeko aukerak komentatu ditzake, baita hori lortzen laguntzen duten aurrerapen teknologikoak ere.

5

Ezagutu helburua lortzen laguntzen diguten profesionalak. (10 min)

Talde bakoitzak, profesionalen datu-basean, gertuko hiru pertsona identifikatuko ditu gutxienez, beren lanarekin taldeek aukeratutako ezinbestekoak lortzen laguntzen dutenak.

Talde bakoitzak hautatutako pertsona baten profila ezagutaraziko du, eta hark zer ekarpen egiten duen azalduko du.



Baliabideak:

- GJH bideoa
- Ordenagailua/proiektagailua (bideoa ikusteko eta planeten aplikazioan nabigatzeko)
- Aukera guztiak (produktuak/zerbitzuak) jasotzen dituzten fitxak

Gauzatzeko gomendioak



Komeni da jardueran parte hartzera gonbidatutako profesionalak zerikusia izatea kontsumorako produktuen ekoizpenarekin, material berrien sorkuntzarekin edo hondakinei balio berri bat ematearekin. Garrantzitsua da bizi-kalitatea eta ekonomia zirkularra hobetzeko egiten duen ekarpena identifikatzea.



Deskargatu jarduera gauzatzeko behar den materiala (parte hartzen duen talde bakoitzarentzako fitxa-sorta bat eta talde bakoitzak hautatutako fitxak eta azken bat-etortzea kokatzeko taula bat).



Ziurtatu badagoela Interneterako konexioa, jardueraren hasieran proposatutako bideoa ikusteko eta, jarduera amaitzean, lanbideen planetetan nabigatzeko.



Sortu ingurune errespetuzkoa eta enpatikoa. Ziurtatu ikasle guztiek sentitzen dutela interakzioetan eta eztabaidetan gainerakoek kasu egiten dietela eta baloratu egiten dituztela.

Gutxi gorabeherako denbora:

50 minutu

Ebaluatzeko errubrika


Irizpideak	Bikain 5	Ongi 4	Onargarri 3	Nahikoa 2	Hasiera 1
Kontsumo-ohit urei buruzko hausnarketa.	Interes handia pizten du, eta gure kontsumo-ohit urei buruz hausnartzera animatzen du	Interesa pizten du, eta gure kontsumo-ohit urei buruzko hausnarketa errazten du	Nolabaiteko interesa pizten du, eta, haren bidez, gure kontsumo-ohit urei buruzko oinarritzko hausnarketa egiten da	Nolabaiteko interesa pizten du, baina ez du errazten gure kontsumo-ohit urei buruzko hausnarketa.	Ez du inolako interesik pizten, eta ez du gure kontsumo-ohit urei buruzko hausnarketa errazten.
Bizitza duina izateko asebate behar diren premiei buruzko azterketa	Asebate behar diren gutxieneko premiei buruzko analisi kritiko ona egiten laguntzen du.	Asebate behar diren gutxieneko premiei buruzko azterketa egiten laguntzen du.	Asebate behar diren gutxieneko premiei buruzko oinarritzko azterketa egiten da.	Asebate behar diren gutxieneko premiei buruzko azterketa zehaztugabea egiten da.	Ez du gonbidatzen inolako analisirik egitera asebate behar diren gutxieneko premiei buruz.
RKontsumoa sustatzeko erabiltzen diren marketin-estrategiei buruzko hausnarketa	Gehiegizko kontsumoa bultzatzen duten estrategiei buruzko hausnarketa sakona errazten du	Gehiegizko kontsumoa bultzatzen duten estrategiei buruzko hausnarketa egiten da	Gehiegizko kontsumoa bultzatzen duten estrategiei buruzko oinarritzko hausnarketa egiten da	Gehiegizko kontsumoa bultzatzen duten estrategiei buruzko hausnarketa errazten du, lausoki.	Ez du errazten inolako hausnarketarik gehiegizko kontsumoa bultzatzen duten estrategiei buruz
Conocimiento de las distintas familias profesionales implicadas	Interesa pizten du, zalantzak argitzen ditu eta bizi-kalitate ona mantentzen laguntzen duten lanbide-arloak argi eta garbi identifikatzen laguntzen du.	Bizi-kalitate ona mantentzen laguntzen duten lanbide-arloak identifikatzen eta ezagutzen laguntzen du, eta lanbide horiekiko interesa pizten du	Bizi-kalitate ona mantentzen laguntzen duten lanbide-arlo batzuk ezagutzen laguntzen du, eta haiei buruzko zalantza batzuk argitzen ditu.	Bizi-kalitate ona mantentzen laguntzen duten zenbait lanbide-arlori buruzko informazioa eskaintzen du	Ez du bultzatzen bizi-kalitate ona mantentzen laguntzen duten lanbide-arloak ezagutzera.

ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERAK

“PREMIA EDO NAHIA?”

Jarduera-zk.: 3

B(t)
Bizkaia with the talent







ORIENTATZAILEENTZAKO JARDUERA

ERANSKINAK

B(t)
Bizkaia with the talent



Logela propioa




Gozokiak



Hezkuntza



Janari
osasungarria




Telebista



Edateko ura




Opor-bidaiak




Bizikleta




Autoa




Abusuaren eta
abandonuaren
aurkako babesa




Diskriminazioaren
aurkako babesa




Ordenagailua



Arreta
medikoa




Aire garbia




Etxea




Internet



Dirua, nahierara
gastatzeko



Azken modako
arropa




Iritzia eman eta
entzuna izatea



Mugikorra



Bideo-kontsola



agunekin egoteko eta
kirola egiteko lekua